

LOURDES FERNÁNDEZ

Lourdes Fernández Donostian jaio zen 1961. urtean. Bere ibilbidea arte garaikideari estuki lotuta egon da.

1984. *Artearen Historiaren* graduan Lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Tesina *San Telmo Museoa: historiaren museo bat*.

Museologia Masterra eta ***Artearen Kritika*** Masterra Florentziako Università Internazionale dell'Arte (Italia).

1986-87. Chargée de mission Pariseko ***Orsay Museoa***, Eusko Jaurlaritzako bekaekin. Arlo ezberdinen inguruko ezagutzak eskuratu eta museoaren inaugurazioan parte hartu zuen 1986ko abenduan.

1988. *Tolosako Udaletxeko Kultura* saileko zuzendaria (Gipuzkoa), lehiaketa publiko bidez.

1990. *Madrilgo Marlborough Galeriako* zuzendari laguntzailea, Richard Glukcman arkitektoak diseinaturiko egoitza berriaren abiarazte prozesuan parte hartuz. 1992. urtean izan zen galeriaren inaugurazioa, Francis Bacon-en erakusketarekin.

1995. *DV Galeriako* zuzendaria, Diario Vascoren jabetzapeko gunea. Donostiako hirian nazioarteko artea sustatzea eta euskal artista gazteak bultzatzea helburu zuen plataforma moduan jardutea zen galeriaren xedea.

2003. *Manifesta 5* Nazioarteko Europar Biurteko zuzendari nagusia, 2004an Donostiara iritsi zen biurteko nomada. Komisarioak ***Marta Kuzma*** eta ***Massimiliano Gioni*** izan ziren. Europa guztiko 53 artistek proiektu anitzak garatu zituzten hiriko eremu publiko zein erakusketa aretoetan; baita Pasaiako Portuan ere. Donostiako Udaletxearen, Gipuzkoako Foru-Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren koprodukzioa izan zen, CICC-ren bitartez.

2005. *ArcoMadrid*-eko zuzendaria, Madrilgo Nazioarteko Arte Garaikidearen feria, arte garaikideko merkatuaren gune nagusietako bat. ***Selliger eta Conde***-ren hautaketa prozesu bidez hautatua. Mundu osotik datozen 200 galeriak baino gehiagok hartzen dute parte. Halaber, komisariotza programa eta egungo sormen agertokiaren inguruko eztabaida-gune izateko sortutako arte garaikide adituen arteko Foroa antolatzen ditu. Foro hau Arco Fundazioaren ekintzetako bat da.

2011. 2012an sortu zen ***Reina Sofia Museoko Fundazioaren*** diseinuan elkarlanean aritzea, haren hastapenetatik. Fundazioaren abiarazte prozesuan parte hartu zuen, baita Fundazioaren antolakuntza egituraren sorkuntzan ere. Fundazioaren Patronatuko kide izan da 2012tik 2018ra arte, borondatez uko eginez, Fundazioak berak hasieratik landutako jokabide kodearen betebeharrak beteta.

2012. *Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao*-ko zuzendari nagusia. Programa artistikoak, kulturalak eta aisialdikoak landu zituen. Denboraldi hartan zehar, Azkuna Zentroa Bilboko hiriko eguneroko bizitzaren eragile berri bilakatu zen. 2010ean inauguratu

ostean, zentroak nazioarteko proiektzio handia lortu zuen, baita tokiko (euskal) kultura eta arte testuinguruaren aintzatespen garrantzitsua ere, herritarren parte-hartze handiarekin.

2018. ARTINGENIUM aholkularitzaren sortzaile eta zuzendari nagusia:

Hauek dira azken proiektu aipagarrienak:

- **HONDALEA: Cristina Iglesias** artistaren proiektuaren – instalazio publikoa – zuzendaritza eta koordinazioa, Donostiako Santa Klara uharteko itsasargian. Donostiako Udalak egina eta finantzatua.
- **ZABAL:** Artingeniumek laguntza teknikoa eskaintzen dio Etxepare Euskal Institutuari Zabal programarako, munduko Biurteko, Hirurteko eta museo ospetsuenetatik komisarioak erakarri eta harrera egiteko diseinatu. Zabal-en helburua da, alde batetik, Euskal kulturaren eta artearen testuingurua aztertzea eta honen ezagutzan sakontzea. Bestalde, aditu horiek ordezkatzan dituzten nazioarteko ekitaldi kultural eta artistikoetan Euskadiko artea sustatzea bilatzen du. Programa honi esker, June Crespok Veneziako Biurtekoan (2022) parte hartu du; Katalina Erausoren erretratua Sao Paoloko Biurtekoan (2023) egon zen; Itziar Barrio eta Jorge Oteiza Shangaiko Biurtekoan (2023); Iratxe Jaio eta Klaas Van Gorkum Sidneyeko Biurtekoan (2024).
- **WWN:** (World Weather Network) Larrialdi klimatikoari erantzuteko sortu zen *World Weather Network*. Meteorologia-estazioen konstelazio bat da, mundu osoko 28 arte-agentziaz osatua: behatzeko, entzuteko eta ekiteko gonbidapena. Artistek, idazleek eta tokiko komunitateek beren lurraldeko eguraldiari buruzko behaketak, hausnarketak eta irudiak partekatzen dituzte, eta ahotsez eta ikuspegiz osatutako artxipelago bat sortzen dute. Horrez gain, klimatologoek eta ingurumen-adituek parte hartzen dute *World Weather Network*-en. Hala, munduarekiko askotariko ikuspegiak eta herri eta hizkuntza ezberdinetan eguraldia ulertzeko modu anitzak bateratzen ditu. Artingeniumek euskal artistekin egin ditu txostenak, eta, gainera, euskaraz zabaldu ditu.
- **HOTEL DES ARTS-entzako** (Bartzelona) **ART CONSULTANT (Arte Aholkularia):** Archer Hotel Capitalek kontratatua, 2023ko uztailetik berritzen ari diren eta 2025ean amaituko den hoteleko espazio guztietako artisten aukeraketaz arduratzen da. Espazio publikoko eta arteari bideratutako zonaldeetako (ia hotel osoa) obren komisariotza burutzen du. 500 artelan baino gehiago dituen bilduma propioa du, eta berau aztertzen eta eraldatzen ari dira. Erakusketetarako gune bat ere badu, artea eta sormena gizakia eraldatzeko tresna gisa sustatzeko duen borondatea islatzen duena.

- **FORBES HOUSE**-entzako (Madril) **ART CONSULTANT**: Forbesek 2024ko azaroan irekiko du munduko lehen klub pribatua Madrilen. Lourdes Fernández aukeratu dute artearen garapen osoa egiteko, bai eskuraketetan, erakusketetan eta baita arte garaikideari lotutako jarduera programari dakogionean ere.
- **ESKURAKETEN AHOLKULARITZA, DISEINUA, GARPAENA eta KUDEAKETA BILDUMA PRIBATUENTZAT**: Artingenium tokiko, estatuko zein nazioarteko bilduma pribatu garrantzitsuen kudeaketaz arduratzen da.

IKASTARO; HITZALDIK; KONGRESUAK; EPAIMAHAILAK

Urte hauetan guztietan entzule eta hizlari gisa parte hartu duen ikastaro espezializatuak, kongresuak eta topaketak zerrendatzea luzea litzateke. Hainbat foro koordinatu ditu, eztabaida-mahaietan parte hartu du, hitzaldiak eman ditu eta epaimahai eta erakunde ugaritan parte hartu du. Hauek dira nabarmentzekoak:

FORUM D'AVIGNON-BILBAO (D'AVIGNON-BILBAO FOROA). Hiria kultura-ekosistema gisa ulertua. Mundu osoko adituak gonbidatu zituzten belaunaldi berrien kultura-erronkei buruz eztabaidatzeko.

FUNDAZIO EMAILEEN KUDEAKETAKO IKASTARO TRINKOA.

2014an Ginebran burutua, irabazi-asmorik gabeko eta filantropiarako erakundeentzako formakuntzan aktiboki parte hartu zuen. WIS-ek antolatua (filantropia aholkulariak), The Graduate Institut of International and Development Studies-ekin lankidetzan.

EPAIMAHAIKIDEA, museoak zuzentzeko hautaketa-prozesuetan:

- C2M (Madril, 2008)
- CGAC (Santiago de Compostela, 2015)
- ARTIUM (Vitoria-Gasteiz, 2018)

BESTE KARGU BATZUK

- Reina Sofia Fundazioaren Patronatuko kidea;
- ICOMeko kidea (Museoen Nazioarteko Kontseilua). UNESCO);
- Artearen Asturiasko Printzea/Printzesa Sarien epaimahaikidea. 2007-2010 [Richard Serra Saria \(2010\)](#), [Norman Foster \(2009\)](#)

2024. FORBES aldizkariak [Espainiako artearen munduan eragin handiena duten 40 emakumeetako bat](#) dela aitortu du.

HIZKUNTZAK

Gaztelania (ama hizkuntza), **Euskara**, E.I.T (Euskeraz Irakasteko Trebetasunaren agiria), **Ingelera**, C1 (B2 ziurtagiria), **Frantsesa**, C2, **Italiera**, C1.

